

Txostena 2013



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org



Aurkibidea



1.

Aurkezpena

3



2.

Nortzuk gara?

5

Misioa, baloreak, lan ildoak, barne antolakuntza




3.

Gure ekimenak

8

Euskadi, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa



4.

Koordinakundeko kideak

36

Gobernu Batzordea, lan-taldeak, erakundeetan partaidetza, Talde Teknikoa, GGKEak, lankideak



5.

2013 zenbakitan

39



6.

Kontu argiak

40



Euskal lankidetzaren balioa krisi garaian

Bukatzearen urte honetan berriro aipatu behar ditugu nazioarteko lankidetzak jasan dituen mozketak. Aurreko urteetan nabaritu genituen arlo honetako lehenengo murrizketak eta zoritxarrez 2013an ere mantendu egin da joera hori. Eusko Jaurlaritzak dugu jarrera horren adibide argiena, ekitaldi honetan %36 murriztu baititu lankidetzarako aurrekontu partidak. Hala, aurrekontu osoaren %0,35 soilik bideratu du helburu horretara -2007ko Lankidetzaren Euskal Legeak aipatzen duen 0,7tik oso urrun-, hots, %0,4 baino gutxiago lehen aldiz 2002tik.

Erakundeek hainbat argudiotara jotzen dute murrizketa horiek justifikatzeko, besteak beste, hitzetik hortzera darabilten honetara: "lankidetzaren aldeko apustua egiten dugu, baina une honetan ez dago dirurik". Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundean uste dugu dirua

egon badagoela, baina badituztela beren lehentasunak. Kasu batzuetan falta dena, eta gero eta gehiago gainera, lankidetzarako borondate politikoa da. Badakigu gure gizarteak zailtasun ekonomiko larriak bizi dituela -ezin ahaztu GGKEak gizarte honetan bizi garela ere eta, beraz, hiritarren egunerokoak ikusten, sentitzen eta nozitzen ditugu-. Baina gure iritziz, gogo eta konpromisoa izanez gero, posible da kontu publikoak zerora koadratzea, lankidetzarako partida gainerakoak baino gehiago murriztu gabe.

Gure ustez gobernu politikek (estatukoa, autonomikoa, probintziakoa edo udal mailakoa) aurre egin diezaiekete -eta egin behar diete- pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituzten arrazoiei, edonon daudela ere pobrezia eta desberdintasunen ondorioak jasaten dituzten pertsonak. Gobernuak lehentasuna eman behar liokete pobrezia aurkako borrokari, ez bakarrik gure inguruan bizi dugunari, baita herrialde pobretuetako biztanleentz ere, egoera oso larriak bizi dituztelako: ez dute urik, ez hezkuntzarik, ez oinarrizko osasun zerbitzurik...

Euskal lankidetzaren publikoa 25 urtez

Krisiak eta murrizketek markatutako testuinguru honetan gogoratu dugu azken 25 urte hauetan euskal lankidetzaren erreferentzia bat izan dela Estatu osoan, ez bakarrik erakunde publikoek lankidetzara bideratu duten diruarengatik, baina baita ere, eta bereziki, aplikatu diren politiken kalitatearengatik, epe luzeko politikak izatearengatik eta emakumeen eskubide, genero ekitate eta jabeakuntzaren alde duten konpromisoarengatik. Horrengatik, aurten Koordinakundean 0,7 mugimendu historikoaren funtsa berreskuratu nahi izan dugu kaleko ekintzen eta mobilizazioen bitartez, ordezkaritza eta alderdi politikoekin elkartuz, Hegoaldeko pertsonen lekukotzak eta elkarrizketak azalduz, komunikabideetan agertuz, ekintza berritzaileak eginez sare sozialetan, e.a. Bide horiek guztiak baliatu ditugu gizarteari ikusarazteko zein garrantzitsua den Euskadiko lankidetzaren politikak mantentzea. Eta ezin ahaztu 'Lankidetzaren eraldaketarako' kanpaina, non pertsona ezagunek azaltzen duten zergatik mantendu behar diren horrelako politikak, batez ere krisi garaian.



Bestalde, Koordinakundeak aurten ahalegin eta lan handia egin du erakunde barruan 'Zein da zein?' kanpaina martxan jartzeko, zeinaren helburua baita hatzaz seinalatzea pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituzten kausak. Aurrera jarraitu dugu baita Zero Pobrezia kanpainarekin ere. Ekimen horren bidez eta Pobreziaren aurkako Nazioarteko Egunaren markoan, hainbat urte daramatzagu gure kaleetako pobrezia eta desberdintasun egoerak salatzen. Eta aldarrikapen horiek guztiak entzun daitezten, sarean lan egin dugu gure helburu berberak dituzten beste kolektibo, mugimendu sozial eta plataforma batzuekin.

Laguntza eta hurbiltasuna GGKEentzat

GGKE kideentzat hain zailak diren une hauetan, Koordinakundeak beren lana indartzen eta beren helburuetarako laguntza ematen jarraitu du. Asotariko gaiei buruzko aholkularitza eta laguntza eman diegu eta saiatu gara Koordinakundeko espazio parte-hartzaileak baliagarri izan daitezten eredu berri bat eraikitzeko. Bestalde, aholkularitza eman diegu Koordinakundera informazio bila datozen partikularrei. Gainera, aurten 4 erakunde berri sartu dira Koordinakundera: Egoaizia, Baltistan Fundazioa, Garabide eta Mundu Bakean. Ongi etorri denei.

Aurrera egin dugu baita Koordinakundearen Gengero Politika aplikatzeko prozesuan ere, eta ildo horretatik, GGKEentzat interesgarriak diren gaiei buruz eginiko 7 prestakuntza-ekintzak aipatu nahi ditugu, hauxe izan delarik funtsezko ardatzetako bat: tokiko erregimeneko legeriaren erreforma eta

Euskadin izan dituen ondorioak. Ikusirik nolako aldaketa jasaten ari den garapenerako lankidetz, gogoeta prozesu bat jarri dugu martxan gertatzen ari diren aldaketei nola aurre egin aztertzeko. Horretarako, GGKE kideen egoeraren diagnostikoa egiten hasi gara, eta espero dugu prozesu horretatik datu interesgarri asko ateratzea aurrera egin ahal izateko.

Garai latzak bizi ditugun arren, baita lankidetzaren eta GGKEen sektorean ere, baikortasunez begiratu nahi diogu etorkizunari. Koordinakundeko lantaldeek, espazio desberdinek eta erakundearen egunerokotasuna osatzen duten eta beren ahalegina eta denbora eskaintzen duten pertsona guztiek gure helburuak lortzeko baikortasun eta energia hori transmititzen digute. Haiei denei, eta gure

jarduera ahalbidetzen duten gainerako guztiei, mila esker beren lanagatik. Eta halaxe jarrai dezatela, euskal lankidetzak gutxienez beste 25 urteko bizia izan dezan.●

Ana María Arriola
Euskadiko Garapenerako GGKEen
Koordinakundeko presidentea



Koordinakundeko **Youtubeko kanalan** erakundeak 2013an egindako lanaren bideo bat ikus dezakezu.

2. Nortzuk gara?



Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko eta horrek berekin dakar elkarren artean hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea. Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2013aren amaieran 84 GGKE ditu eta 140 egoitza baino gehiago Euskadiko lurraldeetan.

Misioa

Koordinakundea garapen lanetan diharduten GKEez osaturiko kolektibo bat da. GGKE hauek Jokabide Kode amankomun bati atxikitzea erabaki dute eta horrela egitura antolatua osatu dute lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloetan lan egiteko, genero ekitatean oinarritutako giza garapen iraunkorraren paradigmatari jarraituz. Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- Kalitatezko garapenerako lankidetzaren sustatzea, euskal erakunde publiko zein pribatuen artean eta Koordinakundeko kide diren erakundearen artean.
- Koordinakundeko kide diren erakundearen prozesuei laguntzea, dauzkaten gaitasun politiko zein teknikoak indartuz.

- Gure inguruneke eraldaketa soziala bultzatzea, herritarren artean elkartasunaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziarekin eta Iparra-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.

Hori guztia aurrera eramanez nahian, Koordinakundean topaketa, eztabaida eta gogoeta espazioak eskaintzen ditugu kide diren erakundeek irizpide komunak sor ditzaten. Eragina izaten ahalegintzen gara sozialki eta politikoki, aliantzak egiten ditugu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko esanguratsua izaten saiatzen gara. Horrekin batera, erakundeei laguntzen diegu beren lanean, dauzkaten gaitasunak

indartzen ditugu, beren arteko aliantzak bide-
ratzen ditugu eta kolektiboaren esku jartzen
ditugu kide bakoitzak dauzkan baliabideak eta
alderantziz.

Baloreak

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakunde-
aren lana eraldaketa sozialaren esparruan koka-
tzen da, desberdintasunak gaituz eta mun-
du justuago baten alde borroka eginez. Mundu
osoko beste hainbat talde sozialek bezala, geurea
egin dugu 'Beste mundu bat posible da' leloa.
Testuinguru horretan, garapenerako lankide-
tzak oinarritzat dauzka elkartasuna, desinteresa
eta dohaintasuna; garapenerako lankidetzaz ez
da transferentzia ekonomiko hutsa, herri pobre-
tuekin lan egiten da giza garapena eragozten
duten oztopoak ezabatzeke, hezkuntza lortzeko
eta herritarrek sentsibilizatzeko eta ohartarazte-
ko badirela hori guztia eragozten duten hainbat
mekanismo. Koordinakundeak, halaber, kide diren



erakundeen ekintzak zuzentzen dituzten balo-
reak islatzen ditu. Garrantzi berezia ematen dio-
gu demokrazia parte-hartzailea, independentzia,
gardentasuna, koherentzia eta genero ekitatea
lantzeari.

Lan ildoak

Hauek dira GGKE kideek Koordinakundearentzat
finkatu dituzten lehentasuneko lan ildoak:

- Eragin politikoa, salaketa eta mobilizazio
soziala, genero berdintasuna kontuan hartuta.
- Koordinakundeko erakunde kideen eraldaketa
sozialerako gaitasuna indartzea.

Horretarako, erlazionaturik dauden bost helburu
nagusi definitu ditugu:

- Eragina izatea lankidetzaz politiketan.
- Legearen betepena eta politiken koherentzia
zaintzea.
- Kritikoki eta proposamen modura zabaltzea
Ipar-Hegoko desberdintasunen eta gure gi-
zarteko aberastasunaren banaketa desberdi-
naren kausak eta ondorioak.
- Aliantzak sustatzea mugimendu sozialekin,
mobilizazioaren oinarri soziala zabaltzeko eta
alternatiba pluralak eraikitzeko.
- Kide diren erakundeen gaitasunak hobetzea,
beren helburuak koordinatuki, eraginkortasu-
nez, efizienteki eta koherentziaz lor ditzaten.



Barne antolakuntza

Euskadiko Garapenerako GKEn Koordinakundearen organo garrantzitsuena Batzar Nagusia da, zeina aldiari behin elkartzen baita urte bakoitzeko oinarritzako irizpide eta lan ildoak ezartzeko. Batzar Nagusian aukeratzen dira Koordinakundearen kasuan kasuko instantzietan ordezkatuko duten karguak.

Batzar Nagusia urtean gutxienez behin biltzen denez, Gobernu Batzordea Koordinakundearen organo exekutiboa da. Batzorde horrek programatzen eta zuzentzen ditu Koordinakundearen jarduerak, Batzar Nagusiak eta plan estrategikoak zehaztutakoaren arabera. Lurralde Batzarrak, Koordinakundearen ordezkaritza horretan elkartutako GGKEek osatzen dituztenak, lurralde ordezkaritzen gobernu organoak dira. Gainera, lurralde bakoitzean lantaldeak oinarri hartuta egiten da lan. Onginahi hutsez lan egiten duten hainbat GGKEtako kideek osatzen dituzte eta talde txikiak izaten dira. Une honetan eragin sozial eta politikoa, generoa, komunikazioa, garapenerako hezkuntzaren... arloetan lan egiten dute.

Koordinakundeak hiru ordezkaritza ditu, bat lurralde bakoitzeko. Lantalde Teknikoaren laguntza zuzentzen dira Batzar Nagusietan, Lurralde Batzarretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakiak. Gainera, etengabe eskaintzen zaie informazioa eta aholkularitza GGKE kideei eta orientazioa ematen zaie informazio edo laguntza bila Koordinakundera jotzen duten gutzietan.



2001az geroztik, Espainiako GGKEen Koordinakundearen barruan gaude. 2009an, Eusko Jaur-laritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak Euskadiko GGKEen Koordinakundeari eman zion Ignacio Ellacuria saria garapenerako lankidetzaren esparruan egindako ibilbideagatik. Hogei urteko lanagatik eta garapenarekin zein aldaketa sozialarekin hartutako konpromisoagatik emandako esker ona izan zen hau.



Guztion ona

Ana Maria Arriola Palomares
Euskadiko GGKEen
Koordinakundearen presidentea

Las arin, nazioarteko lankidetzaren eredu soziala, politikoa, ekonomia, kultura eta eragin soziala eta politikoa, generoa, komunikazioa, garapenerako hezkuntzaren... arloetan lan egiten dute.

haurtu da behin baino gehiago. Laguntza zuzentzen dituztenak, Batzar Nagusietan, Lurralde Batzarretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakiak. Gainera, etengabe eskaintzen zaie informazioa eta aholkularitza GGKE kideei eta orientazioa ematen zaie informazio edo laguntza bila Koordinakundera jotzen duten gutzietan.

eragin soziala, komunikazioa, garapenerako hezkuntzaren... arloetan lan egiten dute. Hain zuzen ere, etxe berriak hartzen dituzte laguntza zuzentzen dituztenak, Batzar Nagusietan, Lurralde Batzarretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakiak. Gainera, etengabe eskaintzen zaie informazioa eta aholkularitza GGKE kideei eta orientazioa ematen zaie informazio edo laguntza bila Koordinakundera jotzen duten gutzietan.

eragin soziala, komunikazioa, garapenerako hezkuntzaren... arloetan lan egiten dute. Hain zuzen ere, etxe berriak hartzen dituzte laguntza zuzentzen dituztenak, Batzar Nagusietan, Lurralde Batzarretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakiak. Gainera, etengabe eskaintzen zaie informazioa eta aholkularitza GGKE kideei eta orientazioa ematen zaie informazio edo laguntza bila Koordinakundera jotzen duten gutzietan.

eragin soziala, komunikazioa, garapenerako hezkuntzaren... arloetan lan egiten dute. Hain zuzen ere, etxe berriak hartzen dituzte laguntza zuzentzen dituztenak, Batzar Nagusietan, Lurralde Batzarretan eta Gobernu Batzordean hartutako erabakiak. Gainera, etengabe eskaintzen zaie informazioa eta aholkularitza GGKE kideei eta orientazioa ematen zaie informazio edo laguntza bila Koordinakundera jotzen duten gutzietan.

Euskadi

Eragin soziala eta politikoa

Helburu bat markatu dugu harreman instituzionaletan, alegia, mahai gainean jartzea lankidetzaren partidetako aurrekontuek, batez ere Eusko Jaurlaritzakoek, jasan dituzten murrizketak.

Era berean, urtean zehar harreman egonkorak izan ditugu Euskadiko lankidetzaren politikak diseinatzeko ardura duten eragileekin eta baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere ordezkariak duten alderdi politiko nagusiekin. Aipatzekoa da aldizkako bilerak egin ditugula Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin eta hiru Foru Aldundietako eta hiriburu eta Udaletako lankidetzaren arduradunekin. Harremanetan egon gara baita Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioekin ere. Azpimarratzekoa da martxoan Koordinakundea Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, berdintasun eta Hiritarren Parte-hartze Batzordean izan zela gure lanari buruzko informazioa emateko, Euskadiko lankidetzaren deszentralizatuaren politika publikoari balioa emateko, gure egoera eta lankidetzaren Euskal Legearena aztertzeke eta lege hori Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan zenbateraino betetzen den neurtzeko. Koordinakundeak ordezkariak egonkorra izan du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorean eta



Euskal Lankidetzaren Kontseiluan. Bi erakunde horien agenden jarraipena egin dugu. Era berean, Koordinakundeko GGKE kideen artean adostutako posizionamenduak eta ekarpenak aurkeztu ditugu, alderdi hauek barne hartuz: koherentzia, genero berdintasuna eta garapenerako hezkuntza.

Goitik behera aztertu ditugu euskal erakunde publiko garrantzitsuenen aurrekontuak eta 2014an aurrekontu horien %0,7 lankidetzara bideratzeko proposamena aurkeztu diegu talde politikoei.

Erakundeetako aurrekontuei dagokienez, koordinatuki jardun dugu lanean beste plataforma



Lankidetzako murrizketen aurkako estrategia

Euskal erakunde gehienetan lankidetzara bideratutako aurrekontuek atzera egin dute azken urteotan, bereziki 2013an. Horregatik Koordinakundeak estrategia global bat jarri du martxan murrizketa horiek saihesteko eta lankidetzara deszentralizatu politikak publiko bezala baloratu dadin. 'Nazioarteko lankidetzan murrizketarik ez!' izan da kanpainaren leloa eta horrekin azpimarratu nahi izan dugu Euskadiko lankidetzara erreferentziazkoa izan dela Estatuan azken 25 urteetan, ez bakarrik erakunde publikoek bideratu duten funts kopuruagatik baina baita ere, eta bereziki, aplikatu diren politiken kalitatearengatik eta emakumeen eskubide, genero ekitate eta jabekuntzaren alde duten konpromisoarengatik. Frogatu dugu halaber aurrekontuetako murrizketek ondorio argiak dituztela

herrialde pobretuetan pobrezian eta ezberdintasun egoeran bizi diren milioika pertsonengan.

Ekimen honen bidez presioa egin nahi izan diogu Eusko Jaurlaritzari, esan baitzuen 2013an %36 murriztuko zuela lankidetzara bideratutako partida. Erabaki horren ondorioz 2013an aurrekontu osoaren %0,35 baino ez du zuzendu helburu horietara -2007ko Lankidetzaren Euskal Legeak eskatzen duen %0,7tik oso urrun-, %0,4 baino gutxiago delarik lehen aldiz 2002tik.

Testuinguru horretan hainbat ekintza antolatu ditugu, besteak beste 'Lankidetzara eraldaketarako: Euskadiko nazioarteko lankidetzaren alde' manifestuaren idazketa. Manifestu hori euskal gizartearen esparru desberdinetako 50etik gora



Euskal nazioarteko lankidetzari eta elkartasunari esker:

- Pobrezian dauden pertsona asko eskolara joaten dira, elikatu egiten dira eta osasun zerbitzua dute.
- Emakume askok euren eskubideak aldarrikatzen dituzte
- eta amen osasuna hobetzen dute. Baita gure inguruan ere gizarte justuago eta engelatu bat sustatzen dugu.

Baina 2013ko Eusko Jaurlaritzako aurrekontuaren proposamenak lorpen hau kolokan jartzen du hau dela eta:

Lankidetzako Euskal Legeak agintzen du Eusko Jaurlaritzako aurrekontuaren	...baina 2013ko aurreikusitako portzentala
%0,7	%0,35
lankidetzara bideratu behar dela...	baino ez da

2007an Eusko Legebiltzarrean onartutako Lankidetzako Euskal lege hau... **...ez betetzea** suposatzen du honek

Danimarka Britainia Handia

Europako herrialde batzuek, borondate politikoa izanda, lankidetzaren aldeko apostua mantentzen dute krisian egonda ere

Nazioarteko lankidetzara orain inoiz baino gehiago beharrezkoa dela politikariei eskatu !!

Nazioarteko lankidetzan mozketak EZI
INO a los recortes en cooperación internacional

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI

Lehendakari zure eskaria sinatu eta aldarrikatu: #presupuestosolidario

www.ongdeuskadi.org

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak Euskadiko hiru lurralde historikoetan kokatuta dauden nazioarteko lankidetzan ari diren 81 GGKEz osaturik dago. Hauen jarrera kode baten pean dituzte giza garapen iraukorra lortzeko genero berdintasunaren.

lagunek (kultura, kirola, mugimendu sozialak, unibertsitatea, sindikalismoa, justizia...) sinatu dute eta baita lankidetzaren sektoreko izen oneko zenbait pertsonak eta Hegoaldeko herrialdeen garapenerako GKEek ere. Gainera, Change.org atariaren bidez 3.400 sinadura bildu genituen lehendakariari eskatzeko ez zezala murrizketarik egin nazioarteko lankidetzan.

Horrekin batera kaleko mobilizazioak egin ditugu. Lehenengoa martxoan izan da, Eusko Jaur-laritzaren 2013ko aurrekontuak aurkezten ziren egunean. Koordinakundeak bat egin du sindikatuen eta mugimendu sozialen Gune plataformak Gasteizen deitutako mobilizazioekin, elkarrekin errebindikatzeko aurrekontu parte-hartzaileak behar ditugula, hiritarren premia erreala islatzen dituztenak eta gastu soziala handituko dutenak. Bigarrena ere martxoan izan da, baina Bilbon kasu honetan. Giza 'domino efektua' antolatatu dugu erakusteko lankidetzan eginiko murrizketek ondorio argiak dituztela Hegoaldean kalteberatasun egoera larrian bizi diren pertsona askorengan. Azkenik, abenduan eta 2014ko aurrekontuen Legearen testuinguruan, kaleko aldarrikapen ekintza antzerkitu bat egin dugu Goloka antzerki konpainiarekin 2014rako murrizketak salatzen. Eusko Legebiltzarraren aurrean egin dugu, 'Lankidetzan murriztuta, pertsonak itota' lelopean.

Komunikazio ekintzak ere egin ditugu (prentsa oharra, komunikabideentzako deialdiak...) jarduera horiek indartzeko eta hala, agerraldi, elkarrizketa eta inpaktu mediatiko handia hedabideetan lortu dugu. Gainera, iritzi artikulua hauek argitaratu ditugu: 'Pertsonak ez al ziren

lehenengo?', 'El deterioro de la cooperación y su impacto en el aumento de la desigualdad entre hombres y mujeres' eta 'Guztion ona'. Telebista eta irratietako eztabaida-saioretan agertu ohi diren pertsonen zuzendutako ekintza bat ere egin dugu. Iritzi publikoa sortzen duten aldetik, lehen eskutik ezagutarazi nahi izan diegu egoera, parte hartzen duten espazioetan azaldu dezaten. Gainera, ekintza berritzaileak egin ditugu sare sozialetan (nagusiki Twitter eta Facebook sareetan) egoera larri hauek, eskaerak eta aldarrikapenak gizarte osora hedatzeko.



Las ONG, «ahogadas» por los recortes en cooperación
Las entidades escritifican frente al Parlamento la apuesta de su actividad para reclamar al Gobierno vasco que cumpla la ley y destine el 0,7% del presupuesto...
El 0,7% del presupuesto que el Gobierno de Euzkadi destina a la cooperación internacional se ha comprometido a cumplirlo en la Ley de Presupuestos de 2013...
El Gobierno de Euzkadi ha comprometido a cumplirlo en la Ley de Presupuestos de 2013...
El Gobierno de Euzkadi ha comprometido a cumplirlo en la Ley de Presupuestos de 2013...

Casi 3.500 firmas rechazan recortes en la asignación de Euskadi a la cooperación

DI V
SAN SEBASTIÁN. Más de 3.400 personas de la sociedad civil y otras 50 personalidades de la cultura, el deporte, el ámbito académico y el periodismo han mostrado su rechazo a los posibles recortes en cooperación internacional que prevé el Gobierno Vasco y ha exigido al lehendakari Iñigo Urkullu que no lleve a cabo los recortes anunciados.

Entre los firmantes figuran la magistrada Garbíñe Biurrun, los escritores Bernardo Atxaga y Toti Martínez de Lezea, José Javier Pardo Iza, vicerrector de Deusto en San Sebastián, Iosu Zabala, rector de MU, el actor Unax Ugalde o los deportistas Alberto Iñurrategi y Virginia Berasategi, entre otros. Han firmado la petición de la Coordinadora de ONG de desarrollo de Euskadi que la dispuso en internet para denunciar los recortes en cooperación que recoge la propuesta de presupuestos del Gobierno Vasco para 2013. De confirmarse esta reducción, la Coordinadora considera que «supondrá un freno a la capacidad transformadora de esta política que busca hacer frente a la pobreza y a las desigualdades, atacando sus causas y paliando sus consecuencias en las poblaciones más vulnerables. Con estos apoyos que hemos recibido queremos mostrar a los partidos políticos que recortar en cooperación supone privar opciones a miles de personas que estaban teniendo una oportunidad en materia de derechos humanos. Muestran que la ciudadanía demanda unos presupuestos en los que la cooperación y la solidaridad internacional también tengan su lugar», manifiestan. Solicita a los partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco que exijan el cumplimiento de los compromisos asumidos en cooperación internacional y no se reduzca un 36% la ayuda internacionales.



La Coordinadora de ONG denuncia que la dotación de Lakua solo llega al 0,34%

DEL SALGADO | GASTEIZ
La Coordinadora de ONG de Euskadi denunció ayer los recortes impuestos por el Ejecutivo autonómico a las políticas de cooperación al desarrollo, que este año contarán con 35,1 millones de euros, el 0,34% del presupuesto total. «No es de recibo que un Gobierno que representa a una sociedad que históricamente se ha mostrado solidaria y comprometida con la lucha contra la pobreza, siga sin cumplir una ley aprobada en 2007», destacó en alusión a la Ley Vasca de Cooperación, que establece el Gabinete Jeltzale debe

destinar el 0,7% de su presupuesto anual a cooperación internacional. En un acto celebrado frente al Parlamento de Gasteiz, la coordinadora recordó que este porcentaje «sufre y ahoga» a unas organizaciones que ya han sido objeto de recortes. «Lamentablemente llueve sobre mojado», señaló tras reclamar a Lakua que «rectifique». Asimismo, solicitó a los partidos que se mantenga este compromiso con la solidaridad internacional.



'Nazioarteko lankidetzan murrizketarik ez!' ekimenari buruzko xehetasunak eta ekintzak webgunean daude.

Lankidetzaren eraldaketarako

Izenburu horren pean bi ekimen jarri ditugu martxan Euskaditik bultzatutako nazioarteko lankidetzaren lanari balioa emateko, politika publiko horiek egiten duten ekarpena hiritarrei erakusteko eta krisi testuinguru honetan zein beharrezkoak diren ikusarazteko. Lankidetzaren horri esker Hegoaldeko herrietako ehunka lagunek aukera bat izan dezakete beren giza-erreserbatuak errespetatuak izan daitezzen eta beren bizi-baldintzak hobetu daitezzen. Biak kokatzen dira aipatu ditugun murrizketen testuinguruan, nagusiki Eusko Jaurlaritzan, bera izan baita 2013an politika horietan murrizketa handienak egin dituen erakundea.

Lehenengoa ikus-entzunezko kanpaina bat da. Euskal gizarteko pertsonaia ezagun zenbaitek bideo labur batzuk grabatu dituzte, non beren babesa azaltzen baitie lankidetzako politikei eta uko egiten baitie pertsona makalengana zuzeneko eragina duten murrizketei. Gorka Otxoa aktorea, Ana Urrutia kazetaria edo Alberto Iñurrategi mendizalea izan dira ekimenetan parte hartuz nazioarteko lankidetzaren defendatzaileak.

Bigarren ekimena argazki erakusketa bat da, Hegoaldeko herrialdeetako zortzi biztanleren lekukotzak jasotzen dituena. Euskaditik iritsitako nazioarteko lankidetzari esker, giza baliabideen arloan lortu dituzten aurrerapenak kontatzen dituzte irudiak erabiliz. Hezkuntza, osasuna, ur edangarria, emakumeek bizitza berdinagoa izateko duten eskubidea, eta abar errealitate bihurtu dira jende askorentzat euskal gizartearen ahaleginari eta konpromiso solidarioari esker. Urtean

zehar hainbat espaziotan erakutsi dugu lan hori, hala nola Agurainen eta Dulantzin edota Donostian burututako 'Mundu zabalera, errealitate anitz' sentsibilizazio jardunaldian.

Bi jarduera horiekin agertu gara komunikabideetan eta prentsan argitaratu ditugu Hegoaldeko lekukoak horiek, Euskadiko garapenerako lankidetzaren aurpegiak erakusteko.



Lankidetzaren eraldaketarako
Cooperar para transformar

“ Senegalgo gobernuak ez dauka era honetako proiektuak garatzeko gaitasun ekonomikorik baina nazioarteko lankidetzari esker aurrera atera gaitzeko eta duinago bizi. Herri bikiak garatzen ari dira eta desagertzeko zorian zeuden zenbait, beriz, mantendu egin dira, bertan gauzatzen dituzten proiektuei esker. Gure osasuna hobetu egin da, orain barazki ugari eskuratu ditzakegula eta komunak eraiki ditzakegula. Egun eskolako materiala eta botikak eros ditzakegu gure seme-alabentzat eta denbora gehiago daukagu gure familiarekin egoteko.”

“ Hemen beti bizi gara krisian eta sekula ez ditugu lortzen bizitza duina izateko behar diren gutxieneko baldintzak. Nazioarteko laguntzak murrizten badira, are krisi sakonagoan sartuko gara. berriro gaitasun gehiago izango ditugu eta ordu asko ibili beharko dugu ur edangarria edan ahal izateko...”

Senegal



Youtube kanalan

eta geure **web orrian** ikus-entzunezko kanpaina hau osatzen duten bideoak ikus ditzazkezu.

Erakusketa **web orrian** bisitatu dezakezu ere.

Zein da zein?

Plangintza estrategikoa betetz, GGKE ki-deek osatutako talde bultzatzaileak lanean jarraitu du 2013an 'Zein da zein?' kanpaina prestatzen. Ekimen honen helburua garapen eredu kapitalista eta patriarkal honetan zeintzuk diren pobrezia eta desberdintasunen kausak eta erantzuleak gizaritari azaltzea da. Hala, geure lana aurkezpen bideo berritzaile bat, triptiko deigarri bat, ekimenaren web orria eta aurkezpen ekitaldia egitean oinarritu da.

Sentsibilizazio eta komunikazio kanpaina hau komunikabidei aurkezteko zuzendutako kale ekin-tza bat egin dugu abenduan Bilbon eta oihartzun handia lortu dugu Euskadiko eta nazioarteko hedabideetan. Aipatzekoa da Euskadiko prentsan argitaratu dugun 'Zein da zein?' iritzi artikulua. Aldarrikapenezko ekintza antzerkitu hartan *Depatitasalakalle* antzerki taldearen laguntza izan dugu, eta hala, bankeroak, militarrek, aberatsak eta bestelako pertsonaia mozorrotuak izan ditugu aurkezpenean, gaur egungo garapen ereduaren pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituzten elite politiko eta ekonomiko nagusiak irudikatuz. Ezagutzera eman dugu baita web orria ere, ekimenaren topagunea eta pobrezia kausei buruzko informazioa ematen duena. Espreski diseinatu dugu kanpaina hau hiritarrek sare sozialen bidez hedatu dezatela, eta hala, hedapen bide horren aldeko apustua egin dugu.

Zein da zein?

Mila Dominguez
Euzakiko Garapeneko GZEn Koordinatzailea

Orain auzotarik ere, ezberri urri eta sarreratsuek ere, ezberri urri eta sarreratsuek ere, ezberri urri eta sarreratsuek ere...

Zein da zein?

Orain auzotarik ere, ezberri urri eta sarreratsuek ere, ezberri urri eta sarreratsuek ere...

Orain auzotarik ere, ezberri urri eta sarreratsuek ere, ezberri urri eta sarreratsuek ere...

Denuncian que el 82% de las personas de la CAV en riesgo de exclusión son mujeres

Denuncian que el 82% de las personas de la CAV en riesgo de exclusión son mujeres

Denuncian que el 82% de las personas de la CAV en riesgo de exclusión son mujeres



Pobrezia eta desberdintasunen erantzuleak nortzuk diren jakiteko, QR kode hau dispositibo mugikor batekin eskaneatu dezakezu edo kanpainaren webgunea kontsulta dezakezu:



www.iniciativaquienesquien.org

Pobreziaren aurkako astea

Urriaren 17an oroitzen da Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguna eta Zero Pobrezia kanpainaren markoan salatu ditugu pobrezia eta desberdintasunak sortzen dituzten kausak eta horien sortzaileak. Aurten berriro hainbat kolektibo elkartu eta kalera irten gara 'Eraldaketa abian da! *Pobreza 0, hay alternativas*' lelopean eta hedapen bateratua egin dugu hiru lurraldeetako komunikabideetan (prentsaurrekoa Gipuzkoan egin dugu). Horri esker sarri agertu gara elkarrizketetan eta albisteetan. Gainera, 'Pobreziak eta desberdintasunak badituzte alternatibak' iritzi artikulua argitaratu dugu prentsa idatzian. Testuinguru horretan hiritarrei zuzendutako hainbat ekintza garatu ditugu hiru lurraldeetan.

Araban, Koordinakundearekin batera Eskubide Sozialen aldeko Gasteizko Plataformak ere parte hartu du. Aipatzekoak dira: 'Arabatik mundura Nazioarteko Lankidetzarako III. Arabar Foroa', 'Ba al dut nire eskubideak eskatzeko eskubiderik?' izenburupean egin zena -Pez Limbo antzerki taldeak eskainitako '¡Gran subasta! Derechos y despojos de ocasión' antzezpenerekin batera-; 'Immigrazioa, integrazioa, bazterkeria soziala eta krisiaren inpaktua' hitzaldia Gorka Moreno, Ikuspegi@k-Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendariaren eskutik; eta 'Truke merkatua' ekimena. Gainera hainbat tailer egin ditugu hezkuntza zentroetan (Gasteizen eta Laudion) eta 'Laudioko VII. Azoka Solidarioa' antolatzen lagundu dugu.



Bizkaian, Koordinakundeaz gain EAPN-Pobrezia-
ren eta Bazterkeria Sozialaren aurkako Europako
Sareak eta REAS-Ekonomia Alternatibo eta Soli-
darioaren Sareak parte hartu dute ere. Hala, 'Krisia
eta alternatibak' foroa antolatu dugu Bilbon eta al-
darrikapenezko kale ekintza bat egin dugu Bilboko
Alde Zaharrean eta inguruetan *Folk & Fire* trikitixa
taldearekin. Durangon eta Ermuan ere hainbat jar-
duera antolatu dira. Ermuan Stop Desahucios Pla-
taformak eta Fiare-k ere bat egin dute jarduerekin
eta urriaren 17an ekitaldi nagusia antolatu dute
kartelekin eta manifestua irakurriz. Durangon aza-
roan antolatu dira ekintzak: bi film laburren proiekt-
zioa, mahai-ingurua eta erakusketa bat.

Gipuzkoan 5 Zero Pobrezia plataformen bitartez
antolatzen dira jarduerak. Donostian zine forum
bat egin dugu 'Homenatge a Catalunya II' doku-
mentalarekin; eko-feminismoari, banka etikoari,
eko-politikari, ekonomia alternatiboari, eta abar-
ri buruzko prestakuntza bat eskaini dugu UPV/
EHUn; hitzaldi bat antolatu dugu *Corrala Uto-
pia* erakundeko bozeramailearekin eta berriro
programatu dugu aldarrikapenezko bizimartxa.



Youtube kanalan

eta Koordinakundearen **web orrian** 'Krisia eta alternatibak' eta 'Arabatik mundura' foroetako bideoak ikus ditzazkezu, Bilbon eta Gasteizen ospatutakoak hurrenez hurren.

Azkenik, 'Mundu zabala, errealitate anitz' jardunaldia egin dugu. Egun horretan Koordinakundeko kide diren Gipuzkoako GGKEak kalera irteten dira hiritarrei beren lan ildoak, aldarrikapenak eta kanpainak erakusteko. Gainera, hainbat komunikazio ekintza egin ditugu jardunaldi hori indartzeko eta horien bidez elkarrizketa eta albiste berriak lortu ditugu. Jar-duera gehiago egin ditugu Gipuzkoan barrena, hala nola Zarautzen -Zarauzko Elkartasun Taldearen bitartez-, Eibarren eta Irunen (azken horretan bat egin dute manifestuarekin).



Kanpainak, manifestuak eta ekimenak babestea

'**Agente, sare, erakunde eta gizarte mugimenduekiko harreman-markoa**' dokumentua oinarritzat harturik, urtean zehar GGKE kideek proposatutako hainbat manifestu, kanpaina eta ekimenekin bat egin dugu. Besteak beste aipatu nahi ditugu 'Emakumeen Eskubideen Auzitegia', sindikatuen eta mugimendu sozialen Gune plataforma, Bangladesheko gertakari tragikoen salaketa, Guatemalako egoerari emandako babesa, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa eta Euskadiko Elkarbidea GGKEak eginiko lanaren aitortza.

Babesa eman diegu GGKE kideei Koordinakundeak bereak egin dituen kanpainak hedatuz, hala nola 'Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaina' edo bidezko merkataritzarena. Aktiboki parte hartu dugu ere Hegoak 2014rako antolatuko duen 'Garapenerako Hezkuntzaren IV. Biltzarra. Hezkuntza aldatzen mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!' ekimenaren prestaketan. Kasu batzuetan, babesa eman diegu komunikazio aldetik ekimenak hedatzen laguntzeko.



Beste kolektibo batzuekin sarean eginiko lana

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE zentralak, ehundik kolektibo sozialekin batera, batzen dituen Gune plataforman aktiboki parte hartu dugu. Espazio horren bidez, gure ekarpenak egin ditugu 'Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta' idazteko prozesuan. Ekimen horren helburua da dokumentu bat sortzea gure ekonomia eta baliabideak euskal hiritarren zerbitzura jartzeko eta hemen bizi garen guztiok bizi baldintza duinak izan ditzagun, oinarritzko eskubide sozialak aintortuz eta aplikatuz. Era berean, euskal erakundeek eskatzen zaie beraiek ere onar dezatela hiritarrekin hartua duten konpromisoa eta behar diren neurriak har ditzatela guzti hauek aukera izan dezaten beren oinarritzko eskubide sozialak baliatzeko.

Bestalde, Euskal Goi-Bilera Sozialean parte hartu dugu Euskadiko zenbait sindikatu (CCOO, UGT eta USO) eta talde sozialekin batera. Hala, martxoko manifestazioan parte hartu dugu 'Por el empleo y por la regeneración de la democracia, pertsonak lehendabizi!' lelopean, 'Beste Europa bat posible da' Europako Sindikatu Konfederazioaren deialdiaren markoan.

Koordinakundeak eta 4 GGKEk (SODEPAZ, Biladi, Bakea eta Elkartasuna Euskadi eta Bakea eta Duintasuna) osatzen duten Mewando-Palestinarekiko Elkartasun Sarean jarraitu dugu, hiritarrak sensibilizatzeko Palestinako okupazio egoeraren inguruan. Palestinarekiko elkartasun ekintza ugari egin eta babestu ditugu, esaterako Lurraren Eguna

(martxoak 30) edo Nakba Eguna (maiatzak 15), Donostian eta Bilbon eta baita 'Euskal Hedabide eta Gizarte Ordezkariei Palestinarako II. Misioa' ere.

Elkarrizketa Zibilerako Mahaian, hots, politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan eragile desberdinen parte-hartzea bideratzen duten kontseilu, batzorde eta foro anitzen espazio osagarrian presentzia izaten jarraitu dugu. Euskadiko administrazioaren espazio artikulatu bat da, ekintza sozialaren hirugarren sektoreko parte-hartze instituzionalerako aholku organo goren.





Prestakuntzaren arloan, tokiko erregimenaren legeriaren erreformak eta honek nolako eragina duen tokiko erakundeek garapenerako lankidetzara funtsak bideratzeko duten gaitasunean garrantzi handia izan du. Horregatik, Euskal Fondoarekin eta Espainiako GGKEen Koordinakundearekin batera lan egin dugu. Hala, Gasteizen, ekainean, hitzaldi informatzaile bat eman dugu: 'Tokiko Araubidearen oinarrien Legearen erreforma eta tokiko erakundeengan dituen ondorioak' izenburupean. Baita ekainean ere, Donostian eman dugu hitzaldi hori Udaleko Garapenerako Lankidetzara eta Hezkuntzako Aholku Kontseiluan. Abenduan gai berari heldu diogu Bilbon, baina ikuspegi zabalagotik. Horretarako beste hitzaldi bat eskaini dugu eta, besteak beste, Espainiako GGKEen Koordinakundea eta *Plataforma 2015 y Más* gonbidatu ditugu eta Euskadin ordezkari-tza duten alderdi politiko nagusiek legeria horren erreformaz duten ikuspegia eman dute.

Sormena izan da gure beste ardatz garrantzitsuetako bat, ongi baitakigu zein beharrezkoa den gure kaleko ekintzetan estrategia berri eta sor-

tzaileagoak bultzatzea, bai protestetan eta aldarrikapenetan, eta baita hezkuntzan eta sentsibilizazioan ere. Helburu horrekin bi prestakuntza eskaini ditugu: Bilbon, otsailean, 'Sorkuntza kolektiboko ikastaroa. Talde lanean oinarritutako prozesu partehartzailea' izenekoa; eta Gasteizen azaroan, 'Kale ekintzara bideratutako sorkuntza kolektiboa' izenekoa. Ebaluaketak eta tailerretan sortutako ideiak onak izan dira eta horregatik, 2014an jarraitu egingo dugu prestakuntza ildo horrekin.

Prestakuntza saio hauek ere eman ditugu: 'Gardentasunerako eta gobernu onerako tresnari buruzko ikastaroa' eta 'EBko funtsak. Nola eskuratu funts horiek?'. Bestalde, garapenerako lankidetzari eta GGKEei buruzko hitzaldi ugari eman ditugu. Genero arduradunak generoari buruzko prestakuntza espezifiko bat eman du Unesco Etxeak antolatutako 'Iraunkortasuna eta ekitatea garapenerako lankidetzan' ikastaroan.

Ikerketaren atalean, ikusirik nolako aldaketa jasaten ari den garapenerako lankidetzaren, Koordinakundearen gogoeta prozesu bat jarri dugu martxan gertatzen ari diren aldaketei nola aurre egin aztertzeko.

Prozesu hori egin baino lehen, Koordinakundearen osatzen duten GGKEen egoeraren diagnostikoa egiten hasi gara, sektorearen egungo egoera eza-gutzeko. Horretarako, lantalde bat sortu dugu eta hark informazioa erazteko parametroak zehaztu ditu. Gainera, *Taller de sociología*-ren laguntza izan dugu jasotako datuak sistematizatzeko. Inkesta Koordinakundeko GGKE kide guztiei bidali diegu eta helburua da 2010etik 2013ra bitarteko urteei buruzko informazioa jasotzea 4 bloke handitan: Hegoaldeko proiektuetan izandako eragina; Iparraldeko proiektuetan izandako ondorioak; antolakuntza egituraren izandako efektuak; eta etorkizunerako aurreikusten den bilakaera. 2014an lehen azterketa eta joeren lehen analisi eskura

izango dugu jakiteko zer gertatu den azken urteotan lankidetzako erakundeetan. Datu horietatik abiatuta, 2014an gogoeta prozesu bat burutuko dugu GGKEek eta Koordinakundeak garapenerako lankidetzaren testuinguru berri honetan duten kokapena zehazteko.



GGKE kideak indartzea eta publikoarentzako arreta

Urtean zehar GGKE kideen lana indartzen jarraitu dugu eta laguntasuna eman diegu beren helburuak lor ditzaten. Horretarako, informazio eta aholkularitza zerbitzuak eskaini dizkiegu erakunde kideei hainbat esparruri buruz: lankidetzak, deialdiak, diru-laguntzak, lan eskaintzak, prestakuntza, material informatikoaren eta bibliografikoaren mailegua... Bestalde, lan poltsa, materialen eta argitalpenen banaketa eta dohaintzak kudeatu ditugu eta lurralde-etako lantaldeak koordinatu ditugu. 2013an lan ildo berri bat hasi dugu, zerbitzuak eta enpresak bilatzen hasi baikara GGKE kideei abantailak, deskontuak edo hobekuntza globalak eskain diezazkieten.

Era berean, arreta eta orientazioa eman diegu informazio edo aholkularitza bila Koordinakundera jo duten partikularrei, bereziki GGKEetan boluntario izan nahi dutenei edo Hegoaldeko herrialdeetara joateko aukeren berri jakin nahi dutenei. Publiko horri begira, 'Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi duzu?; nola parte hartu' txosten informatiboa eguneratu dugu, web orrian eskuragarri dagoena. Txosten horretan zein aukera dauden GGKE kideen Euskadiko egoitzetan eta herrialde pobretuetan boluntario gisa lan egiteko jasota daude. Aipatzen ditu halaber zein prestakuntza eskaintzen den eta zeintzuk diren esparru honetara lehen aldiz hurbildu nahi dutenentzako edo bertan profesionalki sartu nahi dutenentzako beka, praktikak eta programak.



Bestalde, bilera informatiboak egin ditugu Koordinakunderari eta kide diren GGKEei lagundu nahi dieten edota Koordinakundera sartu nahi duten erakundeekin. 2013an 4 erakunde berri sartu dira Koordinakundera: Egoaizia, Baltistan Fundazioa, Garabide eta Mundu Bakean.

Koordinakundeko ordezkartzen beste eginkizunetako bat Lurralde Batzarretarako deialdia egitea da erakundeen lan koordinatua hobetzeko. Hala, GGKEek parte-hartze aktiboa izan dute lan espazio desberdinen bitartez: lantaldeak, batzordeak...

Aurten berriro eguneratu eta hobetu dugu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta erkidego mailan elkartasuna eta lankidetzat sustatzen duten komunikabideak eta kazetariak identifikatzeko datu basea. Tresna horren helburua da bidea errazteko GGKE kideei hedabideetan sartzeko eta erakundeen informazioa arlo honetan erreferentziazkoak diren pertsonen eskuetara iristeko. Halaber, gai desberdinei buruzko argudio zerrendak eta oinarritzko dokumentazioa helarazi diegu GGKEei, lagungarri izan dakien hedabideen aurrean egiten dituzten agerraldietan. Horrez gain, komunikazioari buruzko aholkularitza eskaini diegu, esaterako kontaktu zehatzak kazetariekin, 'Hegoaldeari dagokionez' Irudi eta Mezu Kodearen aplikazioa, nola erlazionatu hedabideekin, nola egin komunikazio ekintza zehatzak, e.a.

Bestalde, datu base bat egin dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde publikoek, Eusko Jaur-laritzak eta Espainiako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzat Agentziak (AECID) 2013an argitaratu dituzten diru-laguntza deialdi guztiekin. Ekimen

pribatuen diru-laguntzenak ere egin ditugu. Erregistro horretan deialdiaren izena, xedea, data eta bideratutako diru kopurua daude eta GGKE guztiei helarazi zaie barne antolakuntza errazteko.

Azkenik, Koordinakundeak euskara bultzatzeko eginga duen apustuari jarraiki, hiru ordezkartzek 'Bai Euskarari' ziurtagiriak dituzte; Gipuzkoan 'Guk zerbitzua euskaraz' mailakoa eta Araban eta Bizkaian 'Euskararen bidean' mailakoa.



Elkartasuna eta Filipinak

Ana María Arriola
Euskadiko Garapenerako GGKEen
Koordinakundearen presidentea

Ortalibeta balaitan eta Barne Prodiakto Gerdianan zentzuzkoak izan behar diren ekonomizazio bideak...

Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak... Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak...

Herralde pobreak beste guztiak baino azkero erregak... Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak...

Garapenerako lankidetzak... Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak...

Garapenerako lankidetzak... Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak...

Garapenerako lankidetzak... Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak...

Garapenerako lankidetzak... Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak...

Garapenerako lankidetzak... Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak...

Garapenerako lankidetzak... Hainbat naturari berriro erregaia ematen dioten erregak...


Larrialdia Filipinetan

2013ko azaroan Filipinar Irlen zati bat astindu zuen tifoiairen ostean informazioa bildu dugu larrialdi horretarako GGKE kideek martxan jarritako ekimenei buruz eta hiritarren esku jarri dugu web orrian, lagungarri izan dadin denen laguntza eta elkartasuna bideratzeko. Gainera, informazio horri esker hedabideen eskaerei erantzun diegu eta prentsan 'Elkartasuna eta Filipinak' iritzi artikulua argitaratu dugu larrialdiaren osteko gogoeta gisa. Metro Bilbao enpresarekin batera informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat jarri dugu martxan txartelak saltzeko postuetan. Hauetan QR kode bat jarri dugu eta dispositibo mugikorrek erabiliz aipatutako espazio informatibo hori bisitatu zitekeen Koordinakundearen web orrian.

Argitalpenak


Urtean zehar Ahotsa aldizkariaren hiru ale argitaratu ditugu eta kazetaritzako ikuspegi, formatu eta kolaborazio desberdinen bidez gai ugari landu ditugu. Besteak beste, aipatzekoak dira: Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren arloan egindako murrizketak eta horren ondorioak; 'Emakumeen Eskubideen Auzitegia'; 'Desazkundera eta Bizitza Ona III. Topaketa'; Palestinako errealitatea, bertara bidaiatu duten kazetarien, mugimendu sozialen eta sindikatuen ikuspegietatik; tokiko administrazioaren erreformak lankidetzaren politika deszentralizatuaren eragina eta 'Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta'. Ahotsa aldizkaria era askotako publikoaren artean banatzen dugu, hala nola ikastetxeak, erakundeak, liburutegiak, komunikabideak, GGKEak, beste mugimendu sozial batzuk, pertsonaia interesgarriak...

Koordinakundearen Genero Politika ere argitaratu eta banatu dugu instituzioen, GGKE kideen eta beste kolektibo interesgarri batzuen artean. Aipatzekoa da halaber 2012ko Txostenaren elaborazioa eta erakunde kideekin harremanetan jartzeko datuak biltzen dituen GGKEen direktorioa berreditatu dugula, informazio bila gugana jotzen duen edonoren eskura dagoena.



Gure argitalpen guztiak **web** orrian eskuragarri daude.

Komunikazio kanal propioak



Etengabe eguneratu dugu Koordinakundearen weba eta haren bitartez hedatu ditugu erakundeak antolatutako jarduerak, ekimenak eta ikastaroak, besteek antolatu eta guk babes-ten ditugunak eta baita GGKE kideek martxan jarritakoak ere. Euskadiko mugimendu sozialek antolatu dituzten lankidetzak, elkartasun eta giza eskubideei buruzko jarduerak eta ekimenen berri eman dugu eta webgunean argitaratu ditugu GGKEen lanpostu eskaintzak, boluntario eskaerak eta diru-laguntza publiko eta pribatuen deialdiak. Beste informazio eta albiste garrantzitsu batzuk ere nabarmendu ditugu, GGKEek bidalitako artikulak interesgarriak eseki ditugu eta beste atal batzuk eguneratzen jarraitu dugu, nagusiki erakunde kide bakoitzaren fitxak, dokumentazio interesgarriak, jardunaldiak, kanpainak... Horrez gain, Koordinakundeak idatzitako prentsa oharra, iritzi artikulak eta komunikatuak zabaldu ditugu. Era berean, Koordinakundea presente dagoen blogak eguneratu ditugu.

Urtean zehar astero buletin informatibo digital bat igorri diegu harpidetuei eta buletin horren barruan daude, besteak beste, jardueren agenda, erakunde publiko eta pribatuen diru-laguntza deialdiak, GGKEen lan eskaintzak eta boluntario eskaerak, artikulak eta esteka interesgarriak... Baita sartu ditugu ere Koordinakundeari buruzko albiste interesgarriak, posizionamenduak eta argitalpenak...

Koordinakundeak Facebook eta Twitter sare sozialetan duen presentzia sustatu dugu aukera ematen digulako topagune hori erabiltzen duten pertsona,

elkarte edo mugimendu sozialekin elkarreragiteko eta gure jarduerak edo posizionamenduen berri emateko. Koordinakundeak Youtuben duen kanala indartu dugu, non 'Lankidetzak eraldaketarako' eta Pobreziaren aurkako astea ekimenen bideoak eseki baititugu. Bestalde, ekintza zehatzak garatu ditugu sare sozialetan gure parte-hartzea eta elkarreragina sustatzeko. Beste kanal bat sortu dugu Vimeo sarean 'Zein da zein?' ekimeneko bideo guztiak leku bakar batean biltzeko.

Koordinakundeak komunikazio espazio horien aldeko apustua egin nahi du, horien inguruan gero eta pertsona gehiago biltzen delako eta aukera berriak zabaltzen dituztelako Euskadiko GGKEek garapenerako lankidetzan eta sentsibilizazioan egiten duten lana ezagutarazteko.



Gure lana ezagutu dezakezu gure sare sozialetan jarraituz: **Facebook**, **Twitter**, **Youtube** eta **Vimeo**.

Espainiako GGKEen Koordinakunde

Espainiako GGKEen Koordinakunde kide garen aldetik, etengabe harremanetan egon gara berarekin eta berak antolatutako hainbat espaziotan parte hartu dugu. Izan ere, Koordinakunde Autonomikoen Taldean eta beren bileretan parte hartu dugu, eta beren lanaren jarraipena ere egin dugu gai desberdinak landuz: tokiko administrazioaren erreformak tokiko erakundearen garapenerako lankidetzan dituen inplikazioak; lankidetzaren deszentralizatuaren erreforma proposamenari buruzko eztabaidak eta posizionamenduak, administrazioen ez-ordaintzeak eta zorrak eta tokian tokiko lankidetzarako jardunbide egokien kanpaina. Baita parte hartu dugu ere azaroan Cáceresen eginiko 'Koordinakunde Autonomikoen Urteko Topaketan'. Bertan batez ere landu dugu mugimendu sozialekiko harremana, koordinakundeek beren funtzionamenduen inguruan egin beharreko birplanteamendua eta eragin politikoa inplementatzeko modua.



Lankidetzari buruzko onlineko argazkien artxiboa

GGKE kideen laguntzarekin komunikabide eta erakundeentzat eskaintzen dugun lankidetzari buruzko onlineko argazki artxiboa eguneratu dugu. Euskal GGKEek Hegoaldeko hainbat zonaldean garatzen dituzten proiektuen argazki osatuta dago, eta helburua da egiten duten lana erakustea eta argazki egokiak eskaintzea, hau da, aproposak direnak lankidetzaren eta 'Hegoaldeari dagokionez' Irudi eta Mezu Kodearen ikuspegitik.



Araba

Gasteizko Udaleko Hiritarren Parte-hartze Departamenduak aurten martxan jarritako 'Vitoria-Gasteizko hiritarren parte-hartze ereduaren berrikusteko prozesuan' lanean hasi gara. Baita jarraitu dugu ere departamendu horrek berak dinamizatutako 'Vitoria-Gasteizko Parte-hartzearen eta Elkargintzaren Behatokian'. 2013an Behatoki horrek lehen txostena aurkeztu du, non analisi bat eta hobekuntza proposamenak egiten baititu sare parte-hartzaile eta solidario bat hirian sustatzeko. Gasteizko Udaleko Gasteen Informazio Bulegoarekin ere lan egin dugu boluntariotzari buruzko bi hitzaldi informatibo antolatzeko: 'Elkartasuna oinarritzat harturik, Hegoa aurkitu. Garapenerako GKEak ezagutzea eta parte hartzea' eta 'Boluntario izan nahi dut nire hirian, baina ez dakit nola eta norekin'.

Eskubide Sozialen Aldeko Gasteizko Plataforma kide aktiboa izan gara, helburu berberak partekatzen baititugu pobrezia eta desberdintasunen kontrako borrokan. Honen ekimenak babestu ditugu (pobrezia eta bazterkeria

aurkako kanpaina, Arabako Larrialdi Sozialetarako Laguntzen egoera, udal aurrekontuek arlo sozialean egindako murrizketen salaketa, prentsaurrekoak, mobilizazioak, agerraldiak erakundeetan...). Lankidetzarekin lotutako hainbat aldarrikapen eraman ditugu espazio horretara eta plataformak hitzaldi bat antolatu du Pobrezia aurkako astearren markoan. Harremanetan egon gara Desazkundera erakundearekin, hark ere Pobrezia aurkako astean parte hartu zuelarik plataformaren bitartez. Bakeaz erakundearekin batera, Florent Marcelles idatzitako 'Cooperación al posdesarrollo. Bases teóricas para la transformación ecológica de la cooperación al desarrollo'-ren aurkezpena eta hedapena lagundu dugu. Beraz, argi ikusten da aurrera jarraitzen dugula beste eragile, kolektibo eta erakunde batzuekiko sareak eta aliantzak indartzeko apustuarekin.



Aurten ere espazioa utzi diegu GGKE kideei beren materialak biltegitatu ditzaten Gasteizko Udalak mailegatzen digun lokal batean. Gainera, Koordinakundeak Araban duen egoitza Simone de Beauvoir Elkarte Etxean dago kokatuta eta beste batzuekin partekatzen dugu espazio hori. Hala, GGKE kideek aukera izan dute etxe horretako erabilpen anitzeko aretoa erabiltzeko.

Bestalde, lan handia egin dugu probintziako koadriletan, hain ugariak diren GGKEak ezagutzeko eta beren ekintzak sustatu eta koordinatzeko. Besteak beste, aipatzekoa da probintziako sare laneko dokumentua eguneratu eta zabaldu izana, non GGKEek Araban egiten duten lana indartzeko eta hobetzeko informazio interesgarria biltzen baita hainbat ataletan. Aurten atal eta eduki berriak sartu ditugu dokumentua hobetzeko asmoz.





Probintziako elkartasun azoka garrantzitsuenetan parte hartu dugu; maiatzean Amurrion Zero Pobrezia kanpainarekin eta urrian Laudion Pobreziaren aurkako astearren barruan. Azken horretan, antolakuntzan parte hartzeaz gain, hainbat tailer egin ditugu Gasteizeko eta Laudioko ikastetxeetan nazioarteko eta tokian tokiko pobrezia eta desberdintasunak aztertzeko eta egoera horiei aurre egin eta alternatiba eta proposamenak eskaintzeko. Kanpaina hori Arabako hainbat komunikabidetan hedatu dugu elkarrizketen edo albisteen bidez. Gainera, presentzia izan dugu probintzia mailan Zero Pobrezia kanpainarekin, GGKE kideek hainbat espaziotan parte hartu dutelako, esaterako, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Egunean.



Bitartekaritza lanak ere egin ditugu GGKEen eta beste erakunde publiko batzuen artean, adibidez Aguraingo Kultura Arteko Jaian edo Murgiaiko Euskal Eskola Publikoaren Jaian. Horrez gain, erakunde publikoek lankidetzari buruz eginiko kontsultak eta informazio eskaerak erantzun eta bideratu ditugu, eta gure laguntza eskaini diegu GGKE kideentzat interesgarriak iruditu zaizkigun jarduerak antolatzentz dituzten erakunde edo kolektiboei.

Azkenik, Agurainen 'Lankidetzaren eraldaketarako' argazki erakusketa instalatu dugu eta Dulantzintz boluntariotzari buruz 2014an egingo den sentsibilizazio jardunaldi baten antolakuntzan laguntzen hasi gara.



Lantaldeak

Lankidetzaren politiko garden eta deszentralizatua defen- datzeko lanaren barruan, Eragin Sozial eta Politikoko taldekideok bilerak eta kontaktuak izan ditugu udal eta foru gobernuetako arduradunekin, eta baita Udalean nahiz Foru Aldundian ordezkariak duten alderdi politikoekin ere. Hala, bi erakunde horietako lankidetzaren politikoaren jarraipena egin dugu.

Azpiraratzekoa da Koordinakundeak agerraldi bat izan duela Arabako Batzar Nagusietako Ongizate Sozialeko Batzordean, Gasteizko Eskubide Sozialen aldeko Plataformako beste kide batzuekin batera. Udalari dagokionez, Gizarte Gaietako Batzordean birritan hartu dugu hitza herriarentzako txandan: behin Arabako Larrialdietarako Funtsak jasandako murrizketei buruz hitz egiteko eta beste behin 2013an lankidetzaren partidetarako aurrekontua bete ez dela salatzeke. Gainera, GGKEak eta beren kideak animatu ditugu alegazioak aurkeztu diezazkieten erakunde horrek 2014rako egin dituen aurrekontuei.

Ekintza horiekin eta Udalaren lankidetzaren politikak 2013an berrezarri ondoren Koordinakundetik egin den balorazioarekin oihartzun handia lortu dugu komunikabideetan.

Azkenik, Vitoria-Gasteizko Garapenean Laguntzeko Kontseiluan parte hartzen jarraitu dugu eta GGKE kideek adostutako posizionamenduak helarazi dizkiegu. Koordinakundeak espazio horretan duen ordezkaria Kontseilu horren ordezkari izan da baita Kontseilu Sozialean ere ia urte osoan.



Bizkaia

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da Koordinakundeak 2013an aldatu egin duela Bizkaiko egoitza, eta orain Boluntako (Bizkaiko Boluntariotzaren eta Parte-Hartzerako Agentzia) Ganbaran -Elkargunea- gaudela, Bilboko Erronda kalean. Beste erakunde eta elkarte sozial batzuekin partekatutako espazio bat da eta horrek aukera ematen digu gainerakoekin harremanetan egoteko eta pertsona espektro zabal eta anitzagora iristeko.

Urtean zehar ekintza ugari egin ditugu beste erakunde batzuekin. UPV-EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoarekin eta Boluntarekin batera lantalde bat osatu dugu. Gure ekarpenak egin ditugu Unibertsitate honen ikasleen elkartasun jardueren izeneko metodologiaren eta praktika-aren diseinuan, kredituak jaso baititzakete erakunde sozial batean edo Koordinakundeko kide den GGKE batean boluntario lanak eginez gero.

Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluaren barruan sortu den talde batean ere parte hartu dugu. Talde horretan Udaletxeko Lankidetzaren Arloa, hainbat GGKE eta Koordinakundeak daude. Bertan hainbat jarduerara prestatu ditugu hiritarrei ezagutarazteko nolako lana egiten duen nazioarteko lankidetzak ura eta saneamendua izateko eskubidea defendatzeko.

Baita babestu dugu ere 'Desazkundera eta Bizitza Ona III. Topaketa', apirilaren Bilbon ospatu dena 'Lana zalantzan jartzeko alternatibak' izenburupean. 9 kolektibok -Koordinakunde horien artean- antolatu dute ekimen hau, tokian tokiko esparrutik desazkundera oinarritutako proiektuetan lan egiten duten beste talde askoren inplikazioarekin batera. 200 pertsona baino gehiagok parte hartu dute topaketan eta bai ekimena eta bai antolaketa prozesua oso aberasgarria izan da.



Boluntarioekin bilera
Encuentro voluntariado

Eguna: Martxoaren 20a	Dia: 20 de Marzo
Ordua: 15:00 - 17:00	Hora: 15:00 - 17:00
Non: Bilboko Irakasleen U.E. Beheko solairua 0507G Gela	Lugar: E.U. Magisterio de Bilbao, Planta Baja, Aula 0507G

Para más información:
Oficina de Cooperación al Desarrollo/ Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa,
unibertsitate-boluntaria.ehu.es
office@ehu.es
Tel. 94 601 20 67

Lantaldeak

Eragin Soziala eta Politikoko lantaldeak harreman egonkor eta errazak lortu ditu Bizkaiko lankidetzak politikak egiten dituzten eragile nagusiekin. Zehazki, aldizkako bilerak egin ditugu Bilboko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, ordezkaritza politikoei eta lankidetzaren lanildoak aurkezteko. Baita Bizkaiko Batzar Nagusietako eta Bilboko Udaleko talde politikoekin elkartu gara ere. Bestalde, Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluan dugun ordezkaritza egonkorra mantendu dugu. Espazio horretan hainbat gai landu ditugu, esaterako, 2014ko dirulaguntzen deialdietako oinarriak aztertu ditugu eta Batzordeak datorren urtean izango duen jardueraren ebaluaketa eta plangintza egin ditugu. Gainera, argi adierazi dugu lankidetzako aurrekontuetan egin diren murrizketen kontra gaudela. Batzordeko kideen gehiengoaren onespina izan arren, ez dugu lortu gure posizionamenduak eragina izatea aurrekontuaren amaierako emaitzan, organismo honen posizionamenduak ez baitira lotesleak.

Gainera, aipatzekoa da Bilbon apirilean aurkeztutako 'Euskal lankidetzaren publikoaren azterketa 2008-2010; lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat' ikerketa-lana. Koordinakundeak berak eginiko lan bat da, 2008-2010. urteen artean lankidetzaren politikak garatu dituzten edo helburu horrekin aurrekontu partidaren bat bideratu duten Euskadiko 71 erakunde publikoetako lankidetzaren politikak aztertzen dituen. Ikerketa horren helburua gaur egungo egoerari buruzko gogoeta egitea da eta zenbait giltzarri edo iradokizun ematea GGKEi eta aztertu ditugun erakunde publikoei.



Genero lantaldeak aurten ere hainbat espazio feministatan parte hartu du, hala nola azaroaren 25eko eta martxoaren 8ko Bizkaiko koordinakunde feministetan. Era berean, Mugarik Gabe erakundeak bultzatutako 'Emakumeen Eskubideen Auzitegia' antolatu duen taldean integratu gara beste antolakunde eta mugimendu sozial batzuekin batera -besteak beste, mugimendu feminista-.




Gipuzkoa

2013an Koordinakundeak lekuz aldatu du Gipuzkoako egoitza. Orain lokal bat partekatzen dugu beste kolektibo batzuekin Donostiako Iparragirre kalean, GGKEei eta gizarteari guganainoko bidea errazteko.

Urtean zehar aliantzak sustatzen jarraitu dugu beste mugimendu sozial batzuekin. SOS Arrazakeria eta medicusmundi gipuzkoa erakundeekin lan egin dugu `Arrazakeria eta xenofobiaren aurkako XVI. Martxa´ antolatzeko. Martxoan Donostian egin da `Murrizketarik ez: *En época de rebajas que no nos liquiden*` lelopean eta babes handia lortu du bai gizartean eta bai Gipuzkoako beste kolektibo, elkarte eta GGKE batzuen artean.

Donostiako Udalarekin elkarlanean `Giza Eskubideen Zinemaldia´ ekimenean ere parte hartu dugu apirilean, beste kolektibo batzuekin batera. Gainera, proiektioak egiten diren bitartean informazio espazio bat prestatzen da, Koordinakundeak bere argitalpenen, foileto informatiboen, kanpainen, material eta abarren berri eman dezan. Erakunde bereko Gazteria Sailarekin batera, `Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi duzu? Nola parte hartu?´ hitzaldi informatiboa eman dugu.

Kalean egiten dugun ekintza nagusietako bat `Mundu zabalara, errealitate anitz´ da. 2013an ha-maikagarren edizioa bete du eta Pobreziaren aurkako astearen markoan antolatu dugu. Jardunaldi



hori sakon ebaluatu ondoren ondorioztatu dugu hurrengo edizioetarako ezinbestekoa izango dela ekimena birformatzea eta aldarrikapen eduki handiagoa ematea, testuinguru berrietara egokitu bada.

Urtean zehar gogoeta prozesu bat egin dugu Lurralde Batzarrean, honen izaera informatiboa zailantzan jartzeko eta gogoetan eta parte-hartzean gehiago oinarrituko den espazio bihurtzeko. Era berean, Koordinakundeko kide diren lurraldeko erakundeek taldean lan egiteko, aktiboki parte hartzeko eta gogoeta egiteko dituzten espazioen funtzionamendua hobetzen saiatu gara.

Lan handia egin dugu Gipuzkoako eskualdeetan GGKEek duten presentzia sustatzeko. Ekintza horien artean azpimarratzekoa da Gipuzkoako erakunde, sare eta plataforma ugarien artean eginko koordinazio lana, kontuan hartu behar baita batzuetan lurralde deszentralizatu dela eta eskualdeen araberako ordezkari eta kontzentrazio handiak dituela. Koordinakundeak indartu egin nahi izan du azken urteotan Gipuzkoako hainbat udalekin egindako lana, izan ere Gipuzkoaren ezaugarri nagusietako bat baita elkarte mugimendu oso aktiboa duela. Horretarako, erakunde horiekin genuen harremana berreskuratzen saiatu gara, nahiz eta krisi egoerak lehentasunak aldatu dituen erakunde horien aurrekontuetan.

Aurten ere Zero Pobrezia kanpaina izan da erakunde desberdinen topagunea, zeinak 5 plataforma aktibo baitauzka (Eibar, Debagoiena, Irun, Zarauzko Elkartasun Taldea eta Donostia). 50 antolakunde inguruk lan egiten dute helburu bakar

batekin: pobrezia eta desberdintasunak eta horiek eragiten dituzten kausak desagerraraztea. Plataforma horiek Pobreziaren aurkako Nazioarteko Egunaren inguruan aktibatuta dira nagusiki, Donostiakoak berriz urte osoan zehar mantendu du bere jarduerak.



Lantaldeak

Eragin Sozial eta Politikoko lantaldean azpimarratu nahi dugu harremanetan jarraitu dugula lurraldean ordezkaritza duten indar politiko guztiekin, aldizka elkartu garelarik Foru Aldundiarekin eta Udalako agintaritzekin eta baita oposizioko talde guztiekin ere. Topaketa horiek nagusiki aurrekontuak lantzeko izan dira eta horri esker Gipuzkoako Batzar Nagusietan azaldu gara 'Euskal lankidetzaren publikoaren azterketa 2008-2010; lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat' azterlana aurkezteko eta garapenerako lankidetzaren politikak balioan jartzeko, bereziki krisi garai honetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Zuzentzailearen osatzeko prozesuan parte hartu dugu eta halaber aktiboki parte hartu dugu Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Aholku Kontseiluan. Gainera, lantaldeak ekarpenak egin ditu 'Mundu zabala, errealitate anitz' jardunaldien birformulazio prozesuan, garatzen dugun mobilizazio nagusia delako eta erakunde kide guztiak biltzen dituelako.

Garapenerako hezkuntzan eta eraldaketa sozialean lan egiten duten erakundeei buruzko gogotan presente izan dugu koordinatzeko, sinergiak bilatzeko eta jarduerak egutegietan jartzeko beharra. Garapenerako Hezkuntza taldea hasieratik aritu da proposamenak partekatzen, jardueren buruzko informazioa ematen, koordinatzen eta lan bateratuak eraikitzen. Premia hori ikusirik, lantalde espezifiko bat sortu da Unibertsitateko, eta zehazki, UPV/EHUrekin egingo den lehen esperientzia bezala. Talde horrek garapenerako erakundeek unibertsitatean egiten duten lana aztertuko du, baina gainera azpimarratu nahi izan dugu UPV/EHUk paper garrantzitsu bat izan behar duela aldaketa eragile gisa, lider lanak burutuz gure gizartearen pentsamendu kritikoaren eraikuntzan. Lehen urrats bezala, 2013an aukera eskaini diogu UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoari topaketa bateratu bat antolatzeko eta bertan aldaketa sozialekin bideratzeko lan egiten duten Gipuzkoako eragile sozial eta unibertsitario aktiboen aurre-diagnostiko bat egiteko.





Gobernu Batzordea

Lehendakaritza Ana María Arriola, Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional. **Idazkaria** Alfonso Roncero, Gizakien Lurra. **Diruzaintza** Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. **Arabako ordezkaria** Inmaculada Tazo, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI), Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea (urtearen sasoi ezberdinetan). **Bizkaiko ordezkaria** Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. **Gipuzkoako ordezkaria** Iñaki Orube, Mugen Gaietik. **Batzordekidea** Fernando Vaquerizo, Mundubat.

Lan-taldeak

Euskadi

Eragin Soziala eta Politikoa

Nerea Basterra, Oxfam Intermón. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Regina Zalbidea, FISC Cooperación y Desarrollo. Jesús Ochoa eta Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Alicia Alemán, ALBOAN. Silvia Felipe eta Fernando Vaquerizo, Mundubat. Maider Maraña, Unesco Etxea. Eva Silván eta Ainhoa Oceja, Save the Children. Pedro Ibarra, Baltistan Fundazioa. Gonzalo Fernández, Hegoa. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Gloria Mora, Egoaizia. Sandra Fernández, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniariza. Raquel Calvo, Bateginez. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna.

* 2013aren amaieran.

Generoa

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Beatriz de Lucas, Mundubat. Isabel Uriá, SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia. María Viadero, Mugarik Gabe. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación. Marian Sanz, medicumundi bizkaia. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. María José Pérez, ALBOAN.

Koordinakunde sartzeko eskaera berrien Jarraipen Batzordea

Itziar Hernández, Hegoa. Mila Dominguez, ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación –Gobernu Batzordea ordezkaten-. Idoia Aldama, Koordinazio orokorra.

Araba

Eragin Soziala eta Politikoa

Arantza Chacón, SEADen Lagunen Elkartea Araba. Ainhoa Oceja, Save the Children. Itziar Marquinez eta Miryam Berganza, medicumundi álava/araba. Luis Royero, Manuel Iradier Elkartea Afrikanista. Ananda Abaigar, Adsis Fundazioa. Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Estibaliz Gómez de Segura, Mugarik Gabe.

Bizkaia

Eragin Soziala eta Politikoa

Alicia Alemán, ALBOAN. Nerea Basterra, Oxfam Intermón. Regina Zalbidea, FISC Cooperación y Desarrollo. Laura Ruiz, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Jaime Bernar, Zabalketa. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Puri Pérez, Mugarik Gabe. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Maider Maraña, Unesco Etxea. Ricardo Fernández, medicumundi bizkaia. Begoña de Juan, Mundu Bakean. Pedro Ibarra, Baltistan Fundazioa. Gloria Mora, Egoaizia. Sandra Fernández, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniariza. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi. Laura Castresana, SETEM Hego Haizea. Raquel Calvo, Bateginez. Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna.

Gipuzkoa

Eragin Soziala eta Politikoa

Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Iñaki Orube, Mugen Gaietik. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Fernando Vaquerizo, Mundubat. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Aitor Moreno, PROSALUS. Irati Barreña, Rokpa Euskadi. Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan.

Gipuzkoan dauden Zero Pobrezia 5 plataformetan parte hartzen duten erakundeak ez dira hemen sartzen.

‘Mundu zabala, errealitate anitz’ ekimenaren antolaketan honako hauek parte hartu dute ere: Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak; Carlos Azkarate, SETEM Hego Haizea; José Mari Iriondo, Adsis Fundazioa; Ane García, Behar Bidasoa; Isabel Goenaga, ADRA; Fernando Vaquerizo, Mundubat; Mikel Zabala, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza; Patricia Ortiz de Zarate eta Iñaki Orube, Mugen Gaietik; Maribi Danboriena eta Ainitze Zabala, Interred Euskal Herria; Cristina Casado, Bakea eta Elkartasuna Euskadi; Idoia Azpilicueta, PROYDE-PROEGA; Irati Barreña, Rokpa Euskadi; Iñigo Eguren, Calcuta Ondoan; Elena González eta Manolo García, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingeniaritza (IC-LI); Mari Carmen Elizondo, FISC-Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa Mariaren Lagundia.

Garapenerako Hezkuntza

Izaro Basurko, Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza. Jesús Ochoa, Mugarik Gabeko Ekonomilariak. Gema Hierro, medicumundi gipuzkoa. Patricia Ortiz de Zárate, Mugen Gaietik. Edurne Gallo, Calcuta Ondoan. Ainitze Zabala, Interred Euskal Herria. Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa. Fernando Vaquerizo, Mundubat. Aitor Moreno, PROSALUS. Patricia Ponce, Haurralde.

Erakundeetan partaidetza

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea

Ana María Arriola, Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional eta José Ignacio Eguizabal, ALBOAN, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzen.

Euskal Lankidetzako Kontseilua

Alberto Cereijo, SETEM Hego Haizea. Eva Silván, Save the Children. José Ignacio Eguizabal, ALBOAN. Nerea Basterra, Oxfam Intermón. Cristina Gonzalo, Bilboko Elizbarrutiko Cáritas. Ana María Arriola, Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional. María Viadero, Mugarik Gabe. Eduardo Sánchez, Emaús Gizarte Fundazioa. Iñigo Martínez, Bakerako Lankidetzako Batzarra. Silvia Felipe, Mundubat.

Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseilua

Amaia Iguaran, Ayuda Mas. Esther Calvo, PROCLADE YANAPAY. Javier Garijo, Euskadi-Cuba. Ricardo Fernández, medicumundi bizkaia.

Irailatik aurrera azken bi pertsona hauek Koordinakundea ordezkatzen uzten dute euren agintaldia beteta eta lan hau hurrengoek hartu dute:

Regina Zalbidea, FISC Cooperación y Desarrollo. Sonia González, Bakea eta Elkartasuna Euskadi.



Vitoria-Gasteizko Garapenean Laguntzeko Kontseilua

Inmaculada Tazo, Ingeniería para la Cooperación-Lankidetzarako Ingenieritza (IC-LI) eta Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa.

Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Aholku Kontseilua

Iñigo Odriozola, TAU Fundazioa.

Talde Teknikoa

Idoia Aldama, Koordinazio orokorra. Aurora Hermosilla, Koordinazio administratiboa. Erika Erkizia, Idazkaritza tekniko. Irene Molero, Sareak. Natalia Rodríguez, Eragin soziala eta politikoa. Silvia de Gregorio, Ikerketa, formakuntza eta generoa. Jon González, Komunikazioa.

GGKEak

Acción Verapaz Euskadi
Acnur Euskal Batzordea
ADECO Amistad, Desarrollo y Cooperación
ADRA
Adsis Fundazioa
ALBOAN
Amigos del Tercer Mundo
Ayuda en Acción - Ekintzaz Lagundu
Ayuda Mas
Bakea eta Duintasuna
Bakea eta Elkartasuna Euskadi
Bakerako Lankidetzeta Batzarra
Baltistan Fundazioa
Bateginez
Behar Bidasoa
Bilboko Elizbarrutiko Cáritas
Bizilur
Bultzapen
Calcuta Ondoan
Cáritas Gipuzkoa
Compartir
Edex Centro de Recursos Comunitarios
Egoaizia
Elan Euskadi
Elizbarrutietako Misiok
Emaús Gizarte Fundazioa
Euskadi - Cuba
Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza
FISC Cooperación y Desarrollo

FISC - Nazioarteko Solidaritzarako Fundazioa
Mariaren Lagundia
FUNDESO Garapen Iraunkorreko Fundazioa
Garabide
Garapena
Gazteak eta Garapena
Gizakien Lurra
Haurralde Fundazioa
Hegoa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako
Ingeniería para la Cooperación - Lankidetzarako
Ingenieritza (IC-LI)
Intered Euskal Herria
Iquitanz
ISCOD Euskadi
Itaka Escolapios Fundazioa
Izan Elkartea
Kainabera
Leonekin
Manos Unidas
Manuel Iradier Elkartea Afrikanista
medicumundi álava/araba
medicumundi bizkaia
medicumundi gipuzkoa
MSH Mundu Solidarioa Helburu
Mugarik Gabe
Mugarik Gabeko Arkitektoak
Mugarik Gabeko Ekonomilariak
Mugarik Gabeko Hezkuntza

Mugen Gaietik
Mundu Bakean
Mundubat
Mundukide
Munduko Landagunea
Munduko Medikak
Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional
OSALDE Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartea
Oskar Romero Solidaritza
Oxfam Intermón
PROCLADE YANAPAY
PROSALUS
PROYDE PROEGA
ROKPA Euskadi
Save the Children
SEADen Lagunen Elkartea Araba
SEADen Lagunen Elkartea Bizkaia
SEADen Lagunen Elkartea Gipuzkoa
SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
SERSO San Viator de Euskalherria
SETEM Hego Haizea
SODEPAZ Euskadi
SOLIVE Solidaridad Vedruna
SOTERMUN
TAU Fundazioa
UNESCO Etxea
Zabalketa
Zubiak Eginez

Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzaiguke: lankideak eta boluntarioak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...

Informazio eta aholkularitza zerbitzua*

3.030 Kontsultak eta informazio eskaerak

511 Araba **1.653** Bizkaia **866** Gipuzkoa

Informazioa eskatu duen publikoa sexuka banakatuta

%61 emakumeak **%35** gizonak

3 GGKEetan boluntariotzari buruzko hitzaldiak

Komunikabideekin eginiko ekintzak

11 Prentsa oharra eta komunikatuak

7 Iritzi artikulua

4 Komunikabideentzat deitutako ekitaldiak

240 Komunikabideetako agerraldiak**

38 Asteroko konexioak Onda Vascarekin

8 Koordinakundeak babestutako kanpoko kanpainen edo ekimenen komunikazio ekintzak

Komunikazio kanal propioak

Web orria

67.210 Bisitak (zenbat aldiz sartu diren)

29.377 Bisitari bakarrak (zenbat pertsona ezberdin sartu diren)

* Kontsultak egin dira posta elektronikoz, telefonoz, presentzialki, weba/skype/sare sozialak eta abar erabiliz eta posta arruntez.

Koordinakundearekin harremanetan jartzen diren publiko nagusiak: Koordinakundeko kide diren GGKEak, partikularrak, kanpoko erakundeak edo kolektiboak, instituzioak, komunikabideak, enpresa, ikastetxeak eta Hegoaldeko kontaktuak.

Eginiko kontsulten gai garrantzitsuenak: zerbitzuak (emaitzak, lan poltsa, baliabideak mailegatzeta...); aholkularitza eta informazioa (kontaktuak, diru-laguntzen deialdiak, prestakuntza, lankidetzak, traste administratiboak...); kanpoko erakunde edo kolektiboek buruzko informazioa; boluntariotza eta esperientziak Hegoaldean; eta Koordinakundeari eta GGKE kideei buruzko informazioa.

** Ez ditugu kontuan hartu Koordinakundeak babestu dituen kanpo jarduerekin lotutako inpartak: 'Desazkundera eta Bizitza Ona III. Topaketa'; 'Emakumeen Eskubideen Auzitegia'; 'Mewando sarea - 'Euskal Hedabide eta Gizarte Ordezkarien II. Misioa Palestinara'...'; 'Arrazakeria eta xenofobiaren aurkako XVI. Martxa' martxoaren 8an eta azaroaren 20an eginiko mobilizazioak, Zero Pobrezia kanpainari buruz dohainik txertatutako publikitate eta GGKE kideei bideratutako hedabideen eskaera guztiak.

Asteroko buletina

43 Igorritako asteroko buletinak **1.555** Harpideak

Presentzia sare sozialetan eta bestelako espazioetan

1.310 Facebookeko jarraitzaile kopurua

910 Twitterreko jarraitzaile kopurua

Ahotsa aldizkariak

3 Aldizkari kopurua **1.300** Aldizkari bakoitzaren tirada

Batzarrak

1 Batzar Nagusiak

23 Lurralde Batzarrak **11** Araba **3** Bizkaia **9** Gipuzkoa

GGKEen parte-hartzea

84 GGKE kideak **39** Araba **60** Bizkaia **46** Gipuzkoa

4 Kide diren GGKE berriak

Prestakuntza

7 Prestakuntza ekintzak **110** Parte-hartzaileak

Mobilizazioak eta kale ekintzak

4 Propioak*** **17** Zero Pobreziaren barruan eginiko ekintzak

131 ikasleekin **4** ikastetxeetan tailerrak Zero Pobreziari buruz

2 Parte hartu dugun azoka solidarioak

Kanpainak, manifestuak eta beste ekimen batzuk

6 Koordinakundea zenbat ekimenetara atxiki den

*** Ez ditugu kontuan hartu Koordinakundeak babestu dituen kanpoko ekintzak: Gune plataforma, Euskal Goi-Bilera Soziala, 'Arrazismoaren eta Xenofobiaren Aurkako XVI. Martxa'...

6. Kontu argiak

Sarrerak 2013	Burutua (€)	%
Kuotak	29.545	8
Eusko Jaurlaritza	182.032	50
Arabako Foru Aldundia	15.000	4
Bizkaiko Foru Aldundia	34.000	9
Gipuzkoako Foru Aldundia	30.000	8
Bilboko Udala	18.000	5
Donostiako Udala	31.000	8,5
Gasteizko Udala	20.000	5,5
Jarduerengatik sarrerak	5.889	2
Guztizkoa	365.466	100

Sarrerak 2013	Burutua (€)	%
Bulegoko materiala	5.915	2
Soldatak	264.703	76
Bidaiak	5.993	2
Kanpo zerbitzuak	49.326	14
Funtzionamendua	20.284	6
Guztizkoa	346.222	100

Emitza 19.244*



2013ko kontuak *Abante Auditores* kanpoko enpresak ikuskatu ditu eta egiaztatu du leialki islatzen dutela Koordinakundeko ondarea eta bere finantza egoera. Informazio gehiago [webean](#).

* Desbideratze handienak langileen gastuko aurrezorian gertatu dira, Bulegoen Hitzarmena oraindik sinatzeko dagoenez ez delako aurreikusitako KPlaren igoera osoa aplikatu, aurreztu egin delako bidaia eta materialetan eta gastu txikiagoa egin delako kontratazioetan.



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignacio de Loyola 8, 3. - 1. bulegoa
01001 **Vitoria-Gasteiz**
Tel. 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. - C bulegoa
48005 **Bilbo**
Tel. 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8 - behea
20001 **Donostia**
Tel. 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Laguntzaileak



Euskararekin bat

